

tokirik gabeko autonomia hori onhartuko ote lukete moderatuek?).

Libération, Frantziako ezker muturreko egunkariak dioenez, «bere bekatu bakarra autonomo gelditu nahi izatea duen gutiengo* hau arras* deuseztatzeko* deliberoa hartua du Iraqek». Problema horretaz osteraz* ere jabetzen ari da Europa. Europako ezkerria, hobeki esan. (Ez ezker osoa, hala ere). Hor gertatua genozidiotzat jotzen da.

Frantziako pertsonaia ezagun eta sonatu batzuk* dei bat egin dute, nazio zanpatu horren autodeterminazioaren aldeko burrukaren faboretan.

Dei hori egin dutenen ustetan, hona, hirutan banandurik, kurduak zeren kontra ari diren: a) Iraqeko Gobernuaren arabizazio politikaren kontra; b) Kurdistaneko lurralde aberatsenak galtzearen kontra; c) Bagdadeko aginte politikaren menpean bizitzearen kontra.

Zergatik dei hori? Kurdu herriak autodeterminatzeko eskubidea duelako, eta herri horretako Mugimendu Nazionalaren bizitza arriskutan dagoelako. Baina, halaber,* printzipiozko arrazoin bategatik: «Etnia bat zanpatzea betiere kriminala da, nahiz eta holako politika baten arduradunek sozialistak direla esan».

Dei hori izenpetu duten beste askoren artean, hauk ikus ditzakegu: Simone de Beauvoir, J. M. Domenach, R. Garaudy, G. Halimi, G. Héraud, R. Lafont, E. Morin, Y. Person, C. Roy, J. P. Sartre... (Joan Mari Torrealdai)

FRANTZIA

Zentralismoa eta eskualdekatzea

Denok dakigu, oso zentralista dela Frantzia. Zentralista izan zen 1789.eko Iraultza, zentralista Napoleon; eta geroztik esenplu on honek zernahi jarraitzaile izan du. Ezkerreko nahiz eskuineko Gobernuak izan, beti «frantsesa eta paristarra».



Pierre Mauroy

Azken urte hauetan, eskualdekatzearen* benetako problematika ezker puntak erabili du: PSUK, eta hortik ezkerretara. Alderdi sozialista zerbaitetaz enteratu* da, baina ez gehiegi. Alderdi komunistak ez daki deus* horretaz, haren azterketa kategorietan ez baita holakorik kabitzen.* Gainerako alderdiek ere ez dute programa jarraigarririk, esateko.

Urte eta gehixeago da, «eskualde kontseiluak» egiten direla Frantzian. Ez dute indar handirik. Ez dute aginterik. Pentsatzen denez, «eskualde agintea», «eskualdeko Parlamentua» ez dira biharko.

Poliki poliki joan nahi du Gobernuak. Parisetik agintebideak aldentzeko* gogorik ez du Poniatowski jaunak. Eta berak agintzen du.

Pierre Mauroy sozialista jaunak eta Lille-ko eskualdeko lehendakariak deiturik, berrikitan* Frantzia osoko eskualdeetako buruak oro bildu dira Lillen. Politikazko joera guztietakoak ziren han. Eta, dirudienez, politikazko diferentzia guztien gainetik, eskualdekatzearen nondiknorrakori buruz ados zetozen denak. Batzu* hotzago, beste batzu beroago. Batipat* bi puntutan zeuden akort: aginte indar gehiago behar duela eskualdeak, eta aginte zentralari presioa egin behar zaiola. Beste ideia interesgarri bat ere agertu zen: zuzenean eta ez bitartekoen bidez hautatu beharko liratekeela kontseilariak. Jendea benetan hartara jartzeko bide bakarria litzateke hori, diote ideia horren aldekoek.

Hori edo hura, baina zerbait egin beharretan aurkitzen dira eskualdekatzearen defendatzaileak. Jendeak ez baitu eskualdekatze hori seriozki hartu. «Notableen», jauntxoaren eskualdekatzea zela salatu zen haseratik. (Joanes Lekerika)

ERRUSIA

Satira bat Moskun

«Jar zeuen gerrikoak» (attachez vos ceintures) du izena luri Liubimov eta Georgi Blakanov idazleen teatro berriak.

Nazismoaren kontrako garaitzapenaren 20. urtea ospatzen da aurten. Artezko antolamenduek oro* garaitzapenaren omenez zerbait egin beharra dadukate. Gisa* denez, teatro hau ere garaipenaren oroitzapenetan* agertzen da.

«Jar zeuen gerrikoak», bai. Aireko* batetan gaude: erdian ibilbidea,* eta jendea ezker-eskuin. Erdiko ibilbide honek bi giza mota eta bi garai bereizten ditu: ha-legia,* gerla garaia eta gaurkoa batetik, eta bestetik karrera egin nahi dutenak eta gizonki beti jokatu gura dutenak. Eredu* arriskutsuan gaude, beraz.

Flash moduan, lehengoa eta oraingoa agertzen dira: gerlateko gertakariak, «kultu» garaiko gehiegikeriak... eta oraingo bizileku problemak, oraingo ezkontz eta dibortzio arazoak... Giroa sortzeko edo dator hori guztiori.

Eta sobietar gizartearen mikrokosmo honetan, arazo zentral bat. Hona: Moskutik urrun dagoen lantegi batetan ez dira Plangintzaren xehetasunak* haintzat hartzen. Moskuko inkestatzaileari* lantegiko arduradunak esplikatu dio, Plangintzaren arabera* lan egitea garestiegi ateratzen dela, geldiegi dela. Eta helburu bertara zuzenago iristeko,* beste helbide bat hautatu dutela, bide modernoagoa.

Lantegiko arduraduna, benetako gizona da, herriarekin bat eginik bizi dena, intelektual zintzoa. Moskutik etorri denak ez du ulertzen, agindutakotik kanpora nola ibil daitekeen. Karrera maite du honek, oroz gainetik. Hona, arestiko* bi sobietar giza mota.

Nork irabaziko du? Moskura joan behar du arduradunak, esplikazioak ematera. Irabaziko ote dio burokraziari? Baztertua izanen ote da? Ez dugu sekula jakingo. Moskura doala, biderditan gelditzen da hegazkina.

Irudimena agintera! 1968.eko maiatzean Parisek eman zuen garrasiaren oihartzuna* dirudi teatro honek. Garrasi atzeratua. Kritika oso gogorra da, zorrotza. Lanerako gogo eskasa, karrerazaletasuna, formalismoa etab. kritikatzan ditu. Horren ohiturarik ez dago Moskun. Beharbada gerrikoa jarri beharra izango dute bi autoreok. Teatroak jarraitzerik balu, Sobietar Batasunean zerbait baino gehiago aldatu delako seinalea. Seinale ona. (Joan Mari Torrealdai)